

# aTLante PROIEKTUA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA OINARRIZKO  
GAITASUNAK HOBETZEKO PROIEKTUA





# aTLante PROiektua

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO  
OINARRIZKO GAITASUNAK HOBETZEKO PLANA



**TITULUA:** Atlante Proiektua. Haur eta Lehen Hezkuntzako oinarriko gaitasunak hobetzeko plana.

**ARGITARATZAILEA:** Nafarroako Gobernua. Hezkuntza Departamentua.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** NG-IMAGEN Y DISEÑO

**MOLDIZTEGIA:** Gráficas Lizarra.

**L.G.:** NA-128/2005

Gobernu guztiak interesaturik daude etorkizuneko herritarrek hezkuntza egokia hartu dezaten eta ikasleen gaitasunak eta hartarako emaitza akademikoak hobetzeko neurriak hartzen dituzte. Hartarako jartzen dituzte beren diru baliabideak eta badituzte ikerketak eta azterlanak eskola porrotaren arrazoiak ikertu eta izandako emaitzak oinarri hobekuntza planak proposatzeko. Nazioarteko erakundeek, Elkarlan eta Garapen Ekonomikorako Erakundeak (OCDE), kasu, hainbat herri eta adinetako ikasleei ebaluazio proba kanpokoak egin dizkietelarik, agertu da hezkuntza aurrekontua handitzea eta hezkuntza planik aurreratuena izatea ez datozela beti bat emaitza hobeak lortzearekin.

Halatan, bada inork ezin izan ditu hezkuntzako problema guztiak behin betiko konpondu, hezkuntza, izan ere oso mekanismo korapilatsua baita zeinean askotan hainbat faktore kanpoko (familiak, gizarteak eta, bereziki, masa komunikabide eta informaziobideek) eta bai barrengo ere, egoten diren aldaketak sortarazi edo zaildu eta hezkuntzaren erreformek behar luketen emaitza izatea galarazten dutenak. Eskola porrotaren arrazoiei antz ematen erraz balitz, erraz ere litzateke hezkuntza erreformatzeko plan eraginkorrek itxuratzen. Ez izaki, ordea.

Hala ere, eta behin betiko konponbiderik ez dagoela onarturik ere, ez da etsi behar eskola porrotaren kontrako borrokan. Hezkuntza Departamentua biziki kezkatutik dago gai honengatik eta, Nafarroako Gobernuak hezkuntza gaietan dituen eskumenez baliatuz, nahi du Nafarroako hurrek kalitateko hezkuntza eskura dezaten, arlo guztietako ezagupenak beretzeko behar diren gaitasunak erdietsi eta sendotu eta norbere nortasuna garatzeko modukoa, printzipio demokratikoak eta giza eskubideak gidari direla.

Bistan da Lehen Hezkuntzako ikasketak bukatzean prestakuntza ona duten ikasleek aukera gehiago dituztela Bigarren Hezkuntzan ere arrakasta izateko eta bai, ondoren, beren bizitza pertsonal eta profesionalean ere. Eskola porrotak, gainera, gogor erasotzen die eskola umeei beren buruen ederretsian; hortik eskolari muzin egitea etortzen da eta horrez gain batzuetan familia barrengo harremanak gaiztotu eta ikasleen garapen afektiboa ere tratatzen du.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuak juzgatu du haurrek eskolan arrakasta izateko ezinbestekoa dela erraz irakurri eta idazteko gauza izatea eta bai zenbakiak konfiantzaz, segurtasunez eta efikaziaz erabiltzea ere, eta beren lanean kontzentratzeko. Gaitasun horiek gaizki barrenduta edukitzea da problemaren sustraia edo haren parte bat behintzat, zeinak azaltzen baitu ikasleek oinarrizko maila eskuratu ez eta eskolan aurrera egin ezinik zergatik geratzen diren.

Hezkuntza Departamentuak, hezkuntza aldaketen plangintzak zenbateko mugak dituen oihartzaren delarik, beste aurrerapauso bat eman nahi du aurreko urteetan hasitako bidean, eta aurtengo helburutzat hartu du haur guztiek, bigarren hezkuntza hastera doazenean, behar bezala garaturik edukitzea Hizkuntza eta Matematikako gaitasun oinarrizkoak, eta ordena, diziplina eta erantukizuna bezalako ohiturak ongi ikasita, ezinbestekoak baitira beren lorpen pertsonal eta profesionalak iristeko. Hartarako, abian jarri behar du Atlante <sup>(1)</sup> Proiektua, zeinak errendimendu akademiko eta hezkuntzazkoa hobetu ez ezik, ikasle bakoitzaren ahalmen intelektuala ahalik eta gehien garatzea ere hartzen baitu helburu, halatan non ikasle guztiek, norbere gaitasunen arabera, ahalik eta mailarik gorenena iritsi dezaten.

Ikasleen gaitasunak bi arlo funtsezko horietan hobetzeko, hainbat neurri hartu behar dira ikasketa sendotzeko. Neurri horietan eskola komunitate osoa egonen da inplikaturik hainbat hezkuntza eremutatik. Neurri horien helburua da ikasleek eskola ikasketaren zutabe diren arlo horietan dituzten gaitasun oinarrizkoak hobetzea.

(1) Atlante Proiektua iritzi zaio proiektu honi zeren gure ustez Hizkuntza eta Matematika eskola jakintzaren eraikin osoa zutik daukaten bi erraldoiak dira, hala nola atlanteek beren sorbaldeen gainean jasaten zituzten Grezia Zaharreko eraikin batzuk.

Proiektu hau gauzatzeko, beharrezkoa da hezkuntza eta kulturaren arloetan arduraren bat duten pertsona eta instituzio guztien elkarlana, denek batera eta koordinaturik, kalitateko hezkuntza baten alde lan egiteko, aukera berdintasuna gidari dugula.

Atlante Proiektuak, horrez gain, koherentzia eman behar die Departamentuak ikasleen Hizkuntza eta Matematika gaitasunak hobetzeko egiten dituen jarduera guztiei: Ebaluazio eta Kalitate Plana, Irakasleentzako Prestakuntza Plana, Aniztasunari arreta emateko plana, Hizkuntza gaitasunen gaineko argitalpenak, Familian Irakurtzeko Kanpaina, eta abar, halatan non, eremu desberdinetatik, koordinatuki lan egin dezagun helburu hau iritsi beharrez: Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarren oinarritzko gaitasunak hobetzea.

Eskola eta Lanbide Irakaskuntzen Zuzendaria

Fermin Villanueva Ferreras.





# aurkiBiDea

FORU AGINDUA \_\_\_\_\_ 9

## ERANSKINA:

HELBURU NAGUSIAK \_\_\_\_\_ 13

HAMAR ARLO FUNTSEZKOAK \_\_\_\_\_ 13

HAMAR HOBEKUNTZA-ILDOAK \_\_\_\_\_ 23

BERROGEITA HAMAR HELBURU ESTRATEGIKOAK \_\_\_\_\_ 24

APLIKATZEKO EGUTEGIA \_\_\_\_\_ 32





## 279/2004 FORU AGINDUA

### URRIAREN 8KOA, HEZKUNTZA KONTSEILARIAK EMANA, ATLANTE PROIEKTUA EZARTZEN DUENA HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO IKASLEEN OINARRIZKO GAITASUNAK HOBETZEKO.

Hezkuntzaren Plangintzarako Zerbitzuko zuzendariak adostasun txostena eman du Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko eta pribatuetako Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzeko helburua duen proiektu bat, Atlante proiektua, onets dadin.

Hezkuntza Departamentuak, Nafarroako Gobernuak hezkuntzan arloan dituen eskumenez baliatuz, proiektu bat egin du haur nafarrek kalitateko irakaskuntza izan dezaten, haurrek, irakaskuntza horren ondorioz, printzipio demokratikoen eta giza eskubideen jabe, beren nortasuna garatzen eta jakintza-arlo guztietako ezagupenak bereganatzen laguntzeko.

Hezkuntza Departamentuak beste pauso bat eman nahi du aurreko urteetan hasitako bidean eta hauxe hartu du helburua: ume guztiek behar bezala gara ditzatela hizkuntzako eta matematikako oinarrizko gaitasunak eta, behar den diziplina eta erantzukina izanik, beren helburu pertsonal eta profesionalak lortzeko jokabide eta usadioak bereganatzeko. Horrenbestez, Nafarroako ikasleek, Lehen Hezkuntzaren helburuak gaindituta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza arrakastaz hastea da xedea. Horretarako, foru agindu honekin Atlante Proiektua jarri da abian (Haur eta Lehen Hezkuntzako oinarrizko gaitasunak hobetzeko proiektua). Proiektu honen arabera, Hizkuntza eta Matematika irakasgaiak dira gainerako jakintza-arloetarako oinarria jartzeko bi zutabeak. Proiektu honek, atzean gelditzen diren ikasleen errendimendu kaxkarra goratzeaz gainera, ikasle argien adimen gaitasuna ere bultzatu nahi du ahalik gehiena, den-denok, nork bere gaitasunen arabera, ahal duen gorenera ailega dadin, batzuen eta besten beharrei erantzunda.

Proiektu honek Lehen Hezkuntzako haurren oinarrizko gaitasunak goratzeko xedea du, eta, ondorioz, nork bere ahalmenen arabera, DBHren helburuen gaindituta, hezkuntza-etapa horretatik gora egiten duen kopurua handitzea.

Atlante Proiektuaren oinarrian funtsezko hamar arlo daude, hobetu beharreko hamar ildorekin bat datozenak. Haietatik abiatuta, berrogeita hamar helburu proposatu dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarren oinarrizko gaitasunak hobetzeko. Helburu horiek lortzeko, eskola komunitatea osatzen duten guztien laguntza behar da.

Hezkuntza Departamentuak hartua du konpromisoa helburu horiek lortzeko behar direnak egiteko, baita abian dauden hezkuntza planek helburu horiek modu koherentean lortzen laguntzeko koordinazio mekanismoak ezartzeko ere. Nafarroako Foru Komunitateko Gobernuak eta Administrazioa arautzen dituen apirilaren 11ko 23/1983 Foru Legeko 36. artikuluko 2.b) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera eman dizkidaten ahalmenak erabiliz,

---

#### **AGINDU DUT:**

---

**1º** Atlante izeneko proiektuaren arloak, hobekuntza-ildoak eta berrogeita hamar helburuak ezarri dira, baita proiektua aplikatzeko egutegia ere. Hori dena foru agindu honen eranskinean ageri da.

---

**2º** Hezkuntza Departamentuak behar diren neurriak hartuko ditu proiektu hau abiarazteko. Betearazteko behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak eskainiko ditu eta funtzionarazteko egintza egokiak bultzatuko ditu.

---

**3º** Foru agindu hau ikastetxe pribatuetan edo diruz lagunduetan aplikatuko da, dagozkien afera orotan, betiere horri buruzko arau indardunen arabera.

---

**4º** Proiektu honen ondoriozko neurriak 2004-2005 eta 2005-2006 ikasturteetan aplikatuko dira, eta 2006-2007 ikasturtearen bukaeran ebaluatuko.

---

**5º** Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzuak ikuskatu eta ebaluatuko ditu proiektu honen ondorioz ikastetxeetan ezartzen diren neurriak, hauek hain zuzen:

- a. ikastetxeetan proiektuaren garapena ebaluatzeko neurriak.
  - b. hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak bereganatzeko sistema ebaluatzeko neurriak.
  - c. hobetzeko prozedurari buruzko aholku eta segimendu neurriak.
- 

**6º** Segimendu batzorde bat eratuko da, Hezkuntza Departamentuan proiektuarekin ikustekoa duten zerbitzuetako ordezkariak osatua. Batzordeak proiektuaren garapena, koordinazioa eta ebaluazioa begiratuko ditu.

---

**7º** Foru agindu hau eta eranskina zerbitzu hauei igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan: Hezkuntzaren Plangintzarako Zerbitzua, Euskara Zerbitzua, Giza Baliabideen Zerbitzua, Dibertsitatea Zaintzeko Zerbitzua, Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua eta Zerbitzuak Ikuskatzeko eta Ikuskapen Teknikorako Zerbitzua.

---

**8º** Eskola eta Lanbide Irakaskuntzaren zuzendari nagusiari ahalmena ematen zaio foru agindu honetan ezarritakoa aplikatu eta garatzeko behar diren xedapenak eman ditzan.

---

**9º** Foru agindu honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

Iruñean, 2004ko urriaren 8an

**HEZKUNTZA KONTSEILARIA**

Luis Campoy Zueco.



---

## Helburu nagusiak

Haur eta Lehen Hezkuntzako umeen oinarrizko gaitasunen maila goratzea.

DBHra Lehen Hezkuntzaren helburuak gainditurik pasatzen diren ikasleen kopurua handitzea.

---

## Hamar arlo funtsezkoak

### 1. Ikasleen oinarrizko gaitasunak.

Atlante Proiektuak hauxe du helburua: ikasleek oinarrizko gaitasunak bereganatzeko ikasketa sendotzea haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan. Horrela, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza hasten duten ikasleek behar adinako gaitasuna lortu badute hizkuntzaren eta matematika arloetan, arrakastaz egingen dio aurre eskola-etapa berriari.

Ulermenezko irakurketa, mintzamena eta idazmena eta kalkulu numerikoa ikastea eskolako helburu nagusietakoa da, handik aurrerako ikasketa-prozesu guztien oinarria baita.

Uste zabaldua da hizkuntz gaitasunak garatzea Hizkuntza izeneko irakasgaiaren eginbeharra dela, eta beste irakasgai edo arloetan aplikatzen dela hartan ikasitakoa. Egia da Hizkuntza izeneko arloari dagokiola aspektu horiek modu berezian lantzea, baina egia da, bestetik, arlo guztien erantzukizuna dela ikasleek ongi ulertzea arloan arloko testuek adierazten dituzten edukiak ulertzea eta haiek ahoz zein idatziz azaltzeko gaitasuna izatea.

Curriculumaren arlo desberdinetan mota guztietako testuak lantzeak eta jakintza-arlo bakoitzaren lexikoa eta hizkera berariazkoa ulertzeak nabarmen

lagunduko dute ikasleen hizkuntz erregistroak aberasten eta lexiko zabal, zehatz eta joria lortzen.

Ulermenezko irakurketak eta mintzamina eta idazmina lantzeak ohiko zereginak izan behar dute, etengabea eta zehazkakoa, arlo guztietako edukiak irakasterakoan lantzen baitira.

Gainera, hizkuntzaren arloko gaitasunak hobetu beharraz ari garenean, gaztelaniaz zein atzerriko hizkuntzaz ari gara, baita euskaraz ere, hizkuntza hori edo horretan ikasten denean. Horrela, bada, curriculumaren hizkuntza guztiek tratamendu didaktiko integrala izanen dute.

Bestetik, matematikaren irakaskuntza da Atlante Proiektuaren oinarrian dagoen beste zutabe nagusia. Arlo honek haxe du bere helburuetako bat: arrazanamendurako gaitasuna eta abstraziorako ahalmena garatzea. Buruketak egitea edo ebatzea da ikasleen pentsamendu logikoa eraikitzeke ardatza, eta horri esker, arloaren beraren edukiak eskuratu eta integratzeaz gainera, komunikazio gaitasunak sustatzen dira testu mota desberdinen bitartez. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleek matematika arloko gaitasuna lortu eta sendotzea proiektu honen helburu nagusietako bat da, gaitasun horretan eraikitzen baita ezagutza zientifikoa. Gaitasun hori behar bezala ez garatzea da, beraz, eskola porrotaren arrazoi handienetakoa. Norberak eskuratutako ezagupenak ulertzeko, aplikatzeko eta haiei buruz arrazoitzeko gaitasunak eskaintzen dituen baliabideez ohartuz gero, gaitasun hori ohitura bihurtuta, nabarmen indartuko zaio ikasleari bizitzan aurre egin beharreko eremu guztietako arazoei erreparatu eta konpontzeko gaitasuna.

## **2. Aukera-berdintasuna**

Hezkuntza gizartearen ondasuna da, helburu hauek dituen: desberdintasunak konpentsatzea eta ikasleek ahalik eta garapen pertsonal, sozial eta kultural egokiena lortzea. Helburuak horiek izanik, Hezkuntza Departamentuak behar diren egintzak eginen ditu, eta behar diren baliabideak eta laguntzak abiaraziko, egoera sozial ahulean daudenen egoerak gaitzitzeko.



Atlante Proiektuak haxe du helburua: Nafarroan bizi diren ume guztiak aukera berberak izatea kalitateko hezkuntza izateko, edozein delarik ere bakoitzaren jatorria, maila kulturala, gaitasuna eta ahalmena. Helburu horren parte inportantea da, bestetik, esfortzu berezia egitea informazioarekiko eta kulturarekiko lotura bakarra eskola duten ikasleen alde.

Hezkuntza Departamentuak ahalegin berezia egin nahi du eskola porrota desagerrarazten egoera sozial ahulean dauden pertsona-taldeetan, eta atentzio berezia eskaintzen egoera sozial ahuleko ikasleen ratio handia duten ikastetxei.

Hori hala bada ere, aukera berdintasuna bultzatzeak ez du berekin ekarri behar homogeneotasunerako joera. Ume bakoitzak bere gaitasun maila du eta nork bere gaitasun maila erdietsi behar du.

Immigrazioaren fenomenoaren ondorioz hezkuntza sisteman sartu diren ikasle atzerritarrei laguntzea beste erronka bat da Nafarroako gizartearentzat. Laguntza berezia emanen zaie eskolan irakaskuntzarako hizkuntza ez dakiten haurrei. Horretarako, behar diren neurriak hartuko dira haur bakoitza dagokion eskola mailan sar dadin eta gainerako ikasleek dituzten aukera berberetz baliu dadin.

Aukera-berdintasun hori gauzatzearren, parte harrarazi behar zaie familiei elkarbizitza demokratikoaren balioak susta ditzaten etxean, eta eskolari lagun diezaioten beren seme-alabek usadio hauek ere bereganatzeko: ordena eta txukuntasuna, ikasteko ohitura eta lanerakoerantzukizuna. Aholkua eta prestakuntza eskaini beharko zaizkie prestakuntzari gabeko familiei, lagundu ahal izan diezaioten beren seme-alabei ikasten eta etxeko lanak egiten.

Gainera, oso garrantzitsua da gizartea afera honetan jabetzea. Garrantzitsua da, bestetik, kanpaina koordinatuak egitea kulturaren eta hezkuntzaren arloko eskumenak dituzten erakunde eta organoen artean. Herri liburutegien eta kultur etxe publiko eta pribatuen zeregina ere munta handikoa da familia pobreenei baliabide bibliografikoak eskaintzeko eta ikasleek informaziorako irispidea izateko.

### 3. Ebaluazioaren kultura

Hezkuntza sistemaren ebaluazioa ikasleen ikas prozesuei ez ezik, honakooi ere aplikatu behar zaie: hezkuntza prozesuak, irakasleen jarduera, ikastetxeak, hezkuntzako ikuskatzailetza eta hezkuntza administrazioa bera.

Hauek dira ikastetxeetako barneko ebaluazio mekanismoak: ikasturte bukaerako memoriak, Departamentuaren ebaluazioa eta kalitate planak, nazioarteko hobekuntza planen kanpoko ebaluazioa (EFQM, ISO, etab.), barne-auditoriak, etab.

Hauek dira kanpoko ebaluazio mekanismoak: Hezkuntza Departamentuaren, INCEn, PISAren eta abarren ebaluazio planen ondorioz ikastetxeek egiten dituzten ebaluazioak.

Ikastetxeetatik kanpoko ebaluazioari dagokionez, kontuan hartzekoa da zentroaren inguruaren egoera sozial eta ekonomikoa eta nolako baliabideak dituzten. Ebaluazioak hauek baloratuko ditu: prozesuak eta emaitzak, antolamendua, kudeaketa eta funtzionamendua, irakaskuntzako eta ikasketako jarduerak.

### 4. Irakasleak

Departamentuak irakasleen ospea goratzea du xedea. Gizarteak irakasleen zeregin publikoa onets dezala bilatzen da. Hauek ere zaindu nahi dira: irakasleen kualifikazioan eta prestakuntzan laguntzea, irakasleen lan baldintzak hobetzea eta pizgarria izatea zeregin hori aintzat hartu eta onets dadin. Estimatu beharrekoa da, bestalde, irakasleek zenbait arlotan egiten duten lana, berrikuntza-planak ezartzen, gelako ikerlanetan eta programen ebaluazio prozesuetan, hain zuzen ere. Beren lan prestakuntza hobetzen egiten dituzten eginahalak eskertu nahi zaizkie gainera.

Hezkuntza Departamentuak kualifikazio profesionaleko langileak ditu, irakaskuntza metodo bikainak dituztenak. Horren berri eman beharra dago,

jakinarazi. Atlante Proiektuak eskertu nahi du, bada, irakasleek, plan pedagogiko berriak erabiliz, ikasleen gaitasun maila goratzen egiten duten lan etengabea.

Beharrezkoa da, hortaz, irakasleei prestakuntza programak eskaintzea, berrikuntzak sartzen, gelan ikertzen eta beren programak ebaluatzen laguntzen dieten programak hain zuzen. Prestakuntza hori ikastetxeetan beretan egin liteke klaustroa osoari dagozkion proiektuak direnean. Banakako prestakuntza izanen da arlo edo espezialitate jakin bateko ikastaro bereziak direnean.

## 5. Ikastetxeen autonomia

Ikastetxeek behar adinako autonomia pedagogikoa eta antolamenduzkoa izanen dute, baita kudeaketa ekonomikoan ere, hezkuntzaren hobekuntza etengabea izan dadin. Hezkuntza Departamentuak autonomia hori sustatu nahi du, eta irakasleak talde-lanean ari daitezen bultzatu.

Hezkuntza Departamentuak ikastetxeekiko akordio edo konpromisoak proposatuko ditu hezkuntza prozesuak nahiz emaitzak etengabean hobetzeko plan eta jarduketak egiteko.

Atlante Proiektuaren iritziz, ikastetxeek autonomia behar dute bakoitzak bere ezaugarriei eta hezkuntza plan bereziei egokitutako kudeaketa pedagogiko eta antolamenduzkoa egiteko. Askatasun horrek bidea emanen dio ikastetxeari, beharrezkoa denean, espezializatzeko edo hobetzeko ahaleginak elementu jakin batzuetan jartzeko, kalitate maila goratzeko betiere.

Autonomia pedagogiko eta antolamenduzkoaz baliatzearekin batera, erantzukizun mekanismoak garatuko dira ikastetxeetako hezkuntza lanaren kalitateak hobera egin dezan.

Ikastetxeen autonomia benetakoa eta eragingarria izan dadin, kalitateko zentro bati dagokion plangintza eta ebaluazioa ziurtatzen dituzten programazio orokorrak eta kurtso bukaerako memoriak egitea izanen da lehenbiziko mekanismoa.

Bigarren mekanismoa ikastetxearen sistema pedagogikoa hobetzea da eta, horretarako, ebaluazio eta kalitate plan bat egin beharra dago, betiere Departamentuak xedatutako hobekuntza lerro eta helburuei segituz.

Hirugarren mekanismoa zera da: ikastetxean kalitatea kudeatzeko sistemak ezartzea, eraginkortasun probatuko sistema estandarizatuen arabera antolatu ahal izateko (ISO 9001:2000, EFQM, etab.).

Hezkuntza Departamentuak bidea erraztu nahi du ikastetxeek irakaskuntza sistemetan berrikuntzak egin ditzaten, irakasle guztiek batera, bereziki ikasleen hizkuntza eta matematika arloetako eskumenak hobetzeko prozesuari dagokionez.

Ikastetxeek, kalitate plan horretan ezartzen diren xedeen arabera, bere ikasle guztien emaitzak hobetzeko erantzunkizuna dute.

## **6.** Ikasleen emaitza akademikoen hobekuntza

Hezkuntza sistema egin ahala guztian arituko da emaitza akademikoak hobetzen eta ebaluazioaren kultura sendotzen. Hirugarren atalean, hobekuntza planak egokiro orientatzeko metodo gisara, hauen ebaluazioa aipatzen da: ikasleena, irakasleena, ikastetxeena eta sistemarena berarena. Emaitzen garrantzia nabarmentzeak ez du esan nahi, inola ere, kontuan hartzen ez denik emaitzen iturri diren prozesuen edo haiek lortzeko baliabideen eginkizuna. Ebaluazioaren ondorioz puntu ahulak identifikatuko dira, eta haiexek hobetu beharko dira jarduketa-lerro zehatzen bitartez.

Ikasleen emaitza akademikoen ebaluaziorako, Atlante Proiektua errendimendu-estandarrez baliatuko da. Haien bitartez, irakasleek erreferentzia zehatz bat izanen dute, hau da, ikasleek zer dakien eta zer jakin behar duen hizkuntzan eta matematikan. Estandar haiei esker, bestetik, arlo horietako emaitzak hobetzeko jarraibideak ere aterako dira.

Hezkuntza Departamentuaren ustez garrantzi handikoa da erreferentzia argi eta zehatzak izatea, hau da, ikasleek zer dakiten eta zer jakin behar duten

irakurketaren arloan eta matematikan Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan. Dena dela, errendimendu-estandarrak ez dira dokumentu itxiak. Aitzitik, irakasleek apartazioak edo balorazioak egiten ahal dituzte haiei buruz, eta egokitzapenak ere egin dakizkieke ikastetxe bakoitzaren ezaugarrien arabera.

## 7. Koordinazio didaktikoa

Hezkuntza Departamentuak ikastetxearen koordinazio didaktikorako arauak garatuko ditu. Koordinazio organoek hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak hobetzeko behar diren neurriak hartuko dituzte.

Atlante proiektuan arlo eta zikloak koordinatzeko organoen funtzionamendu egokirako behar diren orientazioak ematea aurreikusita da.

Ezinbestekoa da Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako irakasleak koordinatzea. Izan ere, ikaslea etapa batetik bestera igarotzean ez da etenik egin behar, ikaskuntza prozesu jarraitua baita.

Haur hezkuntzan, gauzak ikasteko arazoak dituzten ikasleak goiz harrapatu behar dira, lehen hezkuntzan garapen kognitiboa sendotzeko programa berezi bat aplikatu diezaieten, etenik gabe eta modu koherentean. Horregatik, behar-beharrezkoa da hezkuntzako bi etapa horietan jarraikortasuna izatea, hala metodoetan, nola kontzeptuetan.

Curriculumeko hizkuntzen ikaskuntzari modu integratuan ekin behar zaio, ikasleen hizkuntz gaitasunen hobekuntza batera eta modu koordinatuan egin dadin.

Bereziki beharrezkoa da lehen hezkuntzako azkeneko zikloko irakasleak eta eskualdeko institutuak DBHko lehen kurtsoko irakasleak koordinatzea, arlo guztietakoak, batez ere Hizkuntzaren eta Matematikaren arloetan.

Koordinazio hori bermatzeko, lotura-bide bat ezarri behar da. Horretarako, ikastetxeko hezkuntza proiektu egoki bat prestatu beharko da, klaustroaren

laguntzarekin, kontsentsu bidez eta hezkuntza komunitatearen laguntza eta konpromisoak jasoz. Horrela, koordinazioa goitik beherakoa eta horizontala izanen da eta irakasle guztiak inplikaturiko dira.

## **8.** Ikasteko errefortzua eta laguntza

Hezkuntza Departamentuak hezkuntza arloko helburuak lortzeari begira egoera sozial ahulean egoteak duen eragina konpontzeko behar diren ekintzak abiarazi eta baliabide eta laguntzak jarri nahi ditu.

Hezkuntza Departamentuak beharrezkotzat jotzen du lehenbailehen atzematea ikasleen arazo emozionalak eta jokabidekoak, hala nola afektoetan eta jokabidean eduki ditzaketen disfuntzioak. Horretarako, arazoak konpontzera bideratutako hezkuntza filosofia bat abiarazi behar da, bere baitan hezkuntza premia berriazkoen identifikazioa eta, beharrezko kasuetan, konponbide azkarrak hartzea biltzen dituen.

Hortaz, Hezkuntza Departamentuaren erronka da haur bakoitzak bere gaitasunen esparruaren barrenean lor dezakeen mailarik gorena erdiestea.

## **9.** Hezkuntzako balioak

Erantzunberrara, autodiziplina, norberaren esfortzua eta lana, ikasleen aurrerapen pertsonala bermatu eta ikasketak finkatzeko hezkuntza arloko balioak dira. Ahaleginak gizarte sustapenari begira duen balioa aitortzea aukera berdintasuna bermatu eta talde desfaboratuen desberdintasunak konpentsatzeko baliabiderik hoberena da. Eskolak bidea du gorabehera sozialei loturiko desberdintasunak konpentsatzeko, eskola giro orekatu baten barruan, modu gozoan baina zorrotzean, bertan biltzen baitira bai ikasleek ikasteko egiten dituzten ahaleginak, bai irakasleek irakasteko egiten dituztenak.

Hezkuntza Departamentuak uste du ikasleak prestakuntza integrala jasotzeko eskubidea duela, haren nortasuna oso-osorik garatzeko bidea emanen diona.

Orobat, ikas-lana baloratu beharra du eta ikastetxeko bizikidetza arauak errespetatu.

Atlante Proiektuaren ustez, hizkuntza eta matematika arloetan gaitasun maila igotzeko, beharrezkoa da hauek garatzea: ordena eta txukuntasuna, esfortzuaren balioa eta, askatasunez eta erantzukizunez, ikasteko ohitura izatea.

Ezinbestekoa da jokabide-arauak hobetzea, egokiak ez diren kasuetan. Ikastetxeen funtzionamenduaren oinarriak hauek dira: arau argi eta zehatzak izatea, arauak betetzen direnean balorazio positiboa egitea, eta arauak ez betetzeagatik jartzen diren zigorrak betetzeko modu adostea errespetatzea, betiere bortxatu edo kikildu gabe eta ikasleak berak arau eta zehapenen garapen eta aplikazioan inplika daitezela bilatuz.

Azpimarratu beharrezkoa da zeregin garrantzitsua dela eskolako giro ordenatua eta diziplinatua sortzea. Egintza-plan bat behar da horretarako, ikastetxeko langile guzti-guztien fruitua izanen dena. Irakasleek kalitateko irakaskuntza eman dezaten, behar-beharrezkoa da ikastetxean ordena eta elkarbizitza ona ziurtatzea.

Bestetik, irakasleek prestatuta egon behar dute liskarrak konpontzeko eta gelan zein ikastetxean sortzen diren elkarbizitza-problemei aurre egiteko. Ikastetxeek zuzenean jardun behar dute ikasleen jokabidea hobea izan dadin. Hala ere, garrantzitsua da, oso, koordinazioa egotea eskolaren eta familiaren artean erantzukizun eta elkarbizitza ohitura onak indartzeko.

Gizalegea sustatzea ere garrantzitsua da. Haurrei, adina zein den kontuan harturik, demokrazia zer den erakutsi behar zaie, baita, herritar diren aldetik, zer eskubide, betebeharrak eta erantzukizun dituzten. Sendotu beharra dago, bestetik, norberaren erantzukizuna eta besteenganako betebeharrak jabetzea.

## 10. Familien inplikazioa

Hezkuntza Departamentuaren ustez, oso garrantzitsua da familiek ongi jakitea beren seme-alaben ikastetxeetako zenbait daturen berri: ikastetxeen kalitate maila, hobetzeko planak, irakasleen prestakuntza maila eta ikasleen bilakaera.

Atlante Proiektuaren ustez, familiek informazio zehatza izateko eskubidea dute: nola dabilzan beren seme-alabak, nolako emaitzak dituzten, ikasleek zer etxeko lan dituzten eta nolako laguntza ematen ahal dieten seme-alabei.

Ikastetxeek orientabideak eman behar dizkiete familiei etxeko lanetan laguntzeko moduari buruz, ikasteko ohitura eta erantzukizuna nola bultzatu eta irakurzaletasuna nola piztu, hori dena ikaslearen autoestimua sendotzen duen giro lasaian.

Familiek ere lagundu behar diote eskolari beren seme-alabak langileak izan daitezen, eta etxean lan egiteko ohitura izan dezaten, horri esker hobeak izanen baitira bai emaitza akademikoak bai ikaslearen prestakuntza integrala. Frogatua dago etxeko lanak egiten dituen ikasleak emaitza hobeak ateratzen dituela egiten ez dituenak baino, eta, gainera, ikasteko ohitura eta lan-diziplina sustatzen dituela.

Kultur prestakuntzarik ez duten gurasoek irakasle tutoreen aholkua izan behar dute. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen familiei ere lagunduko diete irakasleek orientabide horien bitartez.

Azkenik, beste gizarte eta kultur erakunde batzuen lankidetzara ere behar da proiektu honen helburua lortzen laguntzeko giro egokia sortzeko, hau da, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle nafarren hizkuntza eta matematika arloetako gaitasun maila igotzeko giroa sortzeko.



---

## Hamar hobekuntza-ildoak (Arrakasta-faktore funtsezkoak)

- 1.** Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak nabarmen hobetzea.
- 2.** Hezkuntza modernoa eta kalitatea eskaintzea ikasle guztiei, eta berdintasun-baldintzak hobetzea.
- 3.** Ikasleek, proposatutako hezkuntza helburuei dagokienez, izandako lorpenei buruzko informazioa hobetzea.
- 4.** Irakasleek hezkuntza planetan duten eginkizuna aintzat hartzea, eta irakaskuntza lan ona estimatzea.
- 5.** Ikastetxeei eta ikastetxeetako zuzendaritza taldeei laguntzea hezkuntzari buruzko neurriak antolatzen laguntzea, premien eta helburuen arabera, eta giza eta diru baliabideen kudeaketa hobetzea.
- 6.** Ikastetxeko hobekuntza-planak egitea, neurri zehatzak jarrita, hizkuntza eta matematika arloetako emaitza akademikoak hobetzeko.
- 7.** Ikasleen ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuen garapen jarraitu eta zentzuzkoa hobetzea, eskola-etapa guztietan.
- 8.** Dibertsitatea eta ikasleen hezkuntza egoerak kontuan hartzeko prozesua hobetzea, ikasle bakoitza bere gaitasunen goi mailara ailega dadin.
- 9.** Ikasteko ohitura, lan-diziplina eta bizikidetzara-arauak sustatzea ikasleen artean; ikasleen autoestimua hobetu eta ikasteko gogoia piztea.
- 10.** Familiak seme-alaben hezkuntzan gehiago inplika daitezen lortzea. Halaber, gizarte demokratikoaren balioak eta hezkuntzaren beraren balioak sustatzen lagun dezaten lortzea, horretarako orientabideak izateko aukera emanaz. Hezkuntzaren balioen artean hauek nabarmentzen dira: erantzukizuna, ikasteko ohitura eta lanean saiatzea, hau da, esfortzua.

---

## Berrogeita hamar helburu estrategikoak

Hizkuntza eta matematika arloetan ikasleen oinarriko gaitasunak hobetzeko:

**1.** Haur Hezkuntzan, denbora gehiago ematea hizkuntzaren garapena lantzen, irakurmena eta idazmena eta irakurtzen ikasi aurreko gaitasunak.

---

**2.** Lehen Hezkuntzako curriculumeko arlo guztietan, denbora gehiago ematea hizkuntz gaitasunak lantzen.

---

**3.** Haur Hezkuntzako programazioetan, hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunen tratamendua sartzea.

---

**4.** Haur Hezkuntzako arlo guztietako programa didaktikoetan eta ikasgelako programazioetan, lantzen diren edukiei loturik, hizkuntz gaitasunak garatzeko atal berezi bat sartzea.

---

**5.** Lehen Hezkuntzako matematikako programazio didaktikoan eta ikasgelako programazioetan etapak koordinatzeko irizpideak agertzea, edukiak zentzuzkoak izan daitezen eta mailaz mailakoak.

---

**6.** Ikastetxearen irakurketa plana prestatzea, arlo guztietako irakasleek adostua, irakasle guztiak hizkuntz gaitasunen irakaskuntzan inplikatzeko, hala ikasgelan nola kanpoan.

---

**7.** Ikastetxearen liburutegiaren erabilera hedatzea. Arreta eta antolaketa egokia beharko du eta behar adina baliabide, ikastetxeak arlo horretan dituen beharrei erantzuteko, are irakurtzera animatzeko baliabideak ere.

Liburutegiaren erabilera curriculumaren arlo guztietako programazio didaktikoetan sartzea eta hura erabiltzeko erraztasunak ematea, bereziki, baliabide ekonomiko gutxieneko ikasleei.

---

**8.** Irakasleei laguntzeko materiala argitaratzea, ikasgelan hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak hobetzeko estrategiak erabiltzeko orientabideekin.

---

**9.** Hezkuntzako eta kulturako beste erakunde batzuekin jarduteko plan bateratu bat prestatzea (unibertsitateak, liburutegi publikoa, kultur zentro pribatuak, kultur elkarteak, idazleak, egunkariak, irratia, telebista, etab.), gizarteari ohartarazteko haurtzaroan eta nerabezeroan gaitasun horiek garatzearen garrantziaz.

Ikastetxeko liburutegiaren eta liburutegi publikoaren arteko lankidetzak bultzatzea, azken horren fondo bibliografikoa eskolako programazioaren arabera berriro dadin, gero eskualdeko ikastetxeari maileguan utzi ahal izateko.

---

## Aukera berdintasunean oinarrituriko heziketa hobetzeko:

**10.** Eskola porroteko tasarik handienak dituzten ikastetxeari aholku eta laguntza berezia ematea, tasa hori murrizteko asmoz.

---

**11.** Baliabide gutxieneko familiei dirulaguntzak ematea, beharrik handienak dituzten gizarte-taldeak zein diren eta Nafarroako zein ikastetxetan dauden aztertu ondoren.

---

**12.** Ikasle etorkinak modu arrazional batean banatzea ikastetxeetan, eskolan erabat integratzeko aukera berdina izan ditzaten.

---

**13.** Ikastetxeko tutoretza planean ekintza batzuk sartzea, kultur prestakuntza baxuena duten familiek seme-alaben ikasketa prozesuan lagun dezaten.

---

**14.** Ikastetxeko tutoretza planean atzeratuak dauden ikasleen aukera berdintasuna sustatzeko ekintzak sartzea.

---

## Barneko eta kanpoko ebaluazioa hobetzeko:

**15.** Hizkuntza eta matematika arloetan, zikloaren bukaerako barne-ebaluazioa egiteko probak ezartzea, Hezkuntza Departamentuak aldiari behin egiten dituen ebaluazio probekin bat.

---

**16.** Hezkuntza premia berariazkoak dituzten ikasleei hizkuntzako eta matematikako gaitasunen ebaluazioa egitea.

---

**17.** Barne eta kanpo ebaluazioetako emaitzak ikastetxea hobetzeko planetan, programazio didaktikoetan eta ikasgelako programazioetan sartzea.

---

**18.** Hezkuntza ikuskatzaileak (Hezkuntza Departamentua, INCE, PISA, etab.) kanpo-ebaluazioa eta barne-ebaluazioa (ziklo bukaerako probak, Hezkuntza eta Kalitate planak, EFQM, barne-auditoriak, etab.) gainbegiratzea eta horien gaineko orientazioa ematea.

---

## Irakasleentzako laguntza hobetzeko, hezkuntza prozesuaren funtsezko elementua baita:

**19.** Bitarteko irakasleei egonkortasuna ematea, oposizioen deialdia eginez.

---

**20.** Zuzendaritza taldeak irakasleen irakas-orduen plangintza egitea eta antolatzea, irakasleek hezkuntza premia berariazkoak dituzten haurrei arreta emateko eta horien emaitzak hobetzeko denbora izan dezaten, hori dena Hezkuntza Departamentuaren jarraibideei segituz.

---

**21.** Orotariko irakasleen ikerkuntzarako metodo berriak sustatzea, hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunen maila hobetzeko, merezimendu profesionalak aitortuz eta argitalpenak eginez.

---

**22.** Departamentuak Irakasleen Prestakuntzarako Plan bat prestatzea, arloetako programazio didaktikoetan oinarritzko gaitasunak hobetzeko eta ebaluazio baliabideak ezartzeko neurriak ikastetxeetan garatzen laguntzeko.

Ikastetxeetako prestakuntzari erantzuna ematea, hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak hobetzeko irakasle guztiendako plan orokorrak dituzten ikastetxeetan.

Irakasleei teknologia berriak erabiltzeko prestakuntza ematea, batez ere irakasten duten arloa ikasteko aplikazio didaktikoari begira. On line prestakuntza ikastaroak eskaintzea.

Etengabeko prestakuntzarako ikastaroak eskaintzea, hizkuntzaren eta matematikaren eduki berariazkoetan sakontzeko eta material didaktikoak hobeki erabiltzeko.

---

**23.** Hizkuntz gaitasunak, curriculumaren edozein arlotan, eta matematikako gaitasunak irakasteko zientifikoki egiaztatutako metodoak erabiltzen dituzten irakasleei Departamentuak lanbide merezimenduak aitortzea.

Etapara eta arlo guztietan koordinazio lanak egiten dituzten irakasleei Departamentuak lanbide merezimenduak aitortzea.

---

**24.** Ikasleen emaitzak hobetzeko metodo pedagogikoak, esperientzia didaktikoak eta ikasteko estrategiak hedatzea, material horiek argitaratuz.

---

**25.** Lankidetzaren hitzarmenak sinatzea Nafarroako Irakasle eskolen eta Hezkuntzako Zientzietako eta Pedagogiako fakultaten arduradunekin, planari laguntza eman diezaioten.

---

## Ikastetxeen autonomia hobetzeko:

**26.** Ikastetxea hobetzeko plana prestatzea, zuzendariak eta zuzendaritza taldeak gidatua, Departamentuak ezarritako hobekuntza ildoekin bat. Bi urtez jarraian ebaluazioetan aurrera egiten ez duten ikastetxeetan hobekuntza plan berezia egitea.

---

**27.** Hobekuntza plana egiten duten ikastetxeei departamentuak laguntza eta orientabideak ematea eta plana gainbegiratzea.

---

**28.** Ikasleen errendimendua hobetzeko amoz, ikastetxeek, ikasleen beharren arabera (laguntzarako neurriak, eskolako eta eskolaz kanpoko ordutegia, etab.), beren kabuz hartutako erabakiak, lortutako emaitzak eta hurrengo ikasturtean hobetzeko proposamenak jasoko dituzten idatziak prestatzea. Agiri horiek urteko programazio orokorrarekin eta ikastetxeko azken memoriekin batera gordeko dira.

---

### **Ikaskuntza prozesua ikasleen emaitza akademikoak hobetze aldera bideratzeko:**

**29.** Errendimendu-estandar zehatz eta garbi batzuk ezartzea, Lehen Hezkuntzako hiru zikloetan hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunen arloetan, ikasleek zer jakin behar duten eta zer egiten jakin behar duten finkatzeko.

---

**30.** Barne ebaluazioak egitea, departamentuak prestatzen dituen errendimendu-estandarren arabera, batez ere hizkuntzan eta matematikan.

---

### **Koordinazio didaktikoa hobetzeko:**

**31.** Ikasturte guztietan, egutegi bat finkatzea, Haur eta Lehen Hezkuntzako etapen koordinazio lanetarako esparru osagarriak finkatzeko, metodoetan eta kontzeptuetan koherentzia eta jarraikortasuna izanen direla bermatzeko.

---

**32.** Ikasturte guztietan egutegi bat finkatzea, Lehen Hezkuntzako arlo eta zikloen koordinazio lanetarako esparru osagarriak finkatzeko.

---

**33.** Irakasleen arteko koordinazioa, ikasleek hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunetan dituzten gabeziak atzeman eta zuzentzeko asmoz. Gabezia horiek arloko programazio didaktikoetan adierazi beharko dira.

---

**34.** Ikastetxeetako irakurketa planetan hizkuntz gaitasunen ikaskuntza arlo guztietan sustatzeko koordinazio estrategiak sartzea.

---

**35.** Hizkuntzen tratamendu integratua egitea, terminologia bateratua erabiliz, curriculuma koherentea izan dadin. Irakasten diren hizkuntzen arloak koordinatzeko tresnak sortzea, hizkuntz gaitasuna batera eta modu koordinatuan hobetzeko.

---

**36.** Ikasturtez ikasturte, eskualdeko lehen hezkuntzako azken zikloko irakasleen eta DBHko institutueta irakasleen koordinaziorako esparru osagarriak sortzeko egutegi bat prestatzea, batez ere hizkuntza eta matematika arloetarako.

---

## Beharrak dituzten ikasleen ikaskuntza prozesua hobetu eta laguntzeko:

**37.** Ikastetxe guztietan, premia bereziak dituzten ikasleen hizkuntza eta matematika arloetako gaitasunak hobetzeko lan-ildoak sartzea aniztasunari arreta emateko urteko planean.

---

**38.** Ikastetxe guztietan, premia bereziak dituzten ikasleen gaitasunen eta aurrerapenen barne-ebaluazioa egiteko baliabide bat sartzea aniztasunari arreta emateko urteko planean, eta urteko memorietan ere alderdi horiek jasotzea.

---

**39.** Eskola ordutegiaz kanpo (eskolaz kanpoko orduak, udako ikastaroak, etab.) hizkuntzaren eta matematikaren arloak lagundu eta sendotzeko garatzen diren proiektuei laguntzak ematea.

---

**40.** Aniztasunari arreta emateko urteko planean, eskolako hizkuntza ez beste bat hitz egiten duten familia etorkinen seme-alabei gaztelania irakasteko errefortzu-neurriak jasotzea, programa berariazkoen bitartez.

Aniztasunari arreta emateko urteko planean, gaztelaniaz hitz egin arren, adin bereko ikasleen mailatik behera dauden ikasle etorkinek oinarrizko gaitasunak ikasteko errefortzu-neurriak jasotzea.

---

**Kalitateko irakaskuntza jaso eta emateko behar diren hezkuntza baloreak sustatzeko:**

**41.** Gatazkak konpontzeko prestakuntza ematea irakasleei, ikasgelan eta ikastetxean sortzen diren bizikidetzako arazoak konpondu ahal izateko.

---

**42.** Ikastetxeko bizikidetzarako arau adostu batzuk prestatzea, arau garbi eta zehatzak; betetzen direnean balorazio positiboa eginen da eta errespetatzen ez direnean zigor itundu batzuk aplikatuko dira.

---

**43.** Ikastetxeko tutoretza planetan eta arloko programazioetan ikasleen artean balio hauek bultzatzeko jarduerak sartzeko: ahalegina, ikasteko ohitura, askatasuna, norberaren erantzukizuna eta besteenganako errespetua.

---

**44.** Ikastetxeetako tutoretza planetan gizarte-hezkuntza sustatzeko ekintzak sartzeko, neska-mutikoei, adinaren arabera, demokraziaren izaeraren eta herritarren eginbeharren, arduren eta eskubideen berri emanez.

---

**45.** Sentsibilizazio kanpainak egitea, bizikidetzako arauak errespetatzea zein garrantzitsua den ohartarazteko gizaritari.

---



## Familiak ikastetxeko planetan gehiago inplikatzeko:

**46.** Urteko tutoretza planean, ikastetxeak hauren ebaluazioari eta aurrerapenari buruz familiei igortzen dien informazioa hobetzeko plan bat sartzea.

---

**47.** Ikastetxearen azken memorian tutoreak seme-alabek egin beharreko lanen berri emateko familiekin izandako informazio ekintzak jasotzea (bilerak, idazkiak, ikastetxearen webgunea, ikaslearen agenda, etab.).

---

**48.** Ikastetxearen irakurketa planetan etxean irakurtzeko sustapen ekintzak sartzea eta eskolako kanpainetan familien parte-hartzea bultzatzekoak, tutorearen zuzendaritzapean.

---

**49.** Urteko tutoretza planean tutoreek familiei orientatzeko ildo batzuk sartzea, batez ere premia bereziak dituzten hauren familiei, hain zuzen ere, arlo hauen gainean: seme-alabei autoestimua sustatzeko eta ikasteko ohitura eta erantzukizuna hartzeko eman beharreko laguntza.

---

**50.** Proiektuaren material osagarria argitaratzea eta bertan familientzako orientabideak jasotzea.

---

---

## Aplikatzeko egutegia

### 2004-05 ikasturtea

Honako arlo hauen gaineko arauak garatzea:

- Haur eta Lehen Hezkuntzako curriculumetan oinarritzko gaitasunak lantzeko denbora.
  - Koordinazio didaktikoa.
  - Programazio didaktikoak.
  - Ikastetxeko Irakurketa planak.
  - Ebaluazioaren sistematizazioa.
  - Ikastetxeetako kalitate planak.
  - Aniztasunari arreta ematea eta horren ebaluazioa.
  - Irakasleek hobekuntza planen gainean prestakuntza hartzea.
  - Familien parte-hartzea.
  - Irakaslanaren balorazioa.
  - Baliabideen eta ikastetxeko liburutegiaren erabilera.
  - Irakasleentzako, familientzako eta abarrentzako orientazioa.
- 

### 2005-06 ikasturtea

Honako arlo hauen gaineko arauak garatzea:

- Hezkuntzaren eta kulturaren esparruko beste erakunde batzuekiko lankidetzak (unibertsitateak, liburutegi publikoak, kultur zentroak, elkarteak, etab.).
  - Ikastetxeko barne-arauak (ikasleen eskubide eta eginbeharrak).
  - Ikasteko ohitura eta ahalegintzearen balorea.
  - Familientzako eta abarrentzako orientazioa.
- 

### 2006-2007 ikasturtea

- Proiektuaren ebaluazioa.
  - Funtsezko arloak atzematea.
  - Hobetzeko lan-ildoak prestatzea.
-



